

Lehen Hezkuntzako ebaluazio probak ezartzeko jarraibideak 2007

1- Probak jaso, zaindu eta banatzea

Enpresa banatzaileak probak, behar bezala paketatuak, ikastetxeetara eramanen ditu maiatzaren 7tik 11ko astean. Lehenik eta behin, zuzendariaren ardura da probak jaso eta zaintzea. Orientatzailearekin batera jasotako materiala berrikusiko du eta behar den ale kopurua dagoela egiaztatuko. Alerik falta bada, Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuarekin jarriko da harremanetan.

Zuzendariaren eta orientatzailearen ardura da probak gordeta edukitzea, aurrez ikusitako egutegiaren arabera ebaluazioa egin behar den eguna arte. Egun horretan zuzendariak edo orientatzaileak irakasle bakoitzari bere ikastaldeko probak emanen dizkio.

Aldez aurretik, zuzendariak tutore-ezarle (aplikatzaile) bakoitzari emanen die "Lehen Hezkuntzako ebaluazio probak ezartzeko jarraibideak-2007" izeneko dokumentua.

2- Ikasleak proba egitetik salbuestea

Ebaluazio proba honen antzekoetan erabiltzen den irizpide orokorrari jarraituko zaio, hau da, printzipioz ikasle guztiek egin behar dituzte probak. Proba honen helburua da Nafarroako ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. kurtsoetan une honetan ikasten ari diren ikasleek duten mailaren ikuspegi orokorra izatea.

Nolanahi ere, honako hiru kasu hauetan ikasleak probak egitetik salbuetsirik daude:

- a) Ezgaitasun psikikoari lotutako HPBak dituzten ikasleak (CREENAK erroldatutako ikasleak).
- b) Gaztelan jakin ez eta gure hezkuntza sisteman urtebete baino gutxiago daramaten ikasleak.
- c) Proba egiteko ezintasun fisikoa duten ikasleak (esate baterako, gabezia fisiko-motorikoak dituztenak, besoa igeltsuztatua duten ikasle zaurituak, etab.).

3- Proben ezarpena.

Ikastetxeetako orientatzaileek Nafarroako ikasleak eskolaturik dauden ikasgela batzuetan (ausaz aukeraturiko lagin batean) ezarriko dute proba. Gainerako ikasgeletan, irakasle tutorea probak ezartzeaz arduratuko da. Nafarroako laginari dagozkion ikasgeletan, zeinetan proben ezarlea ikastetxeko orientatzailea bera izanen den, ikasgelako tutorea ere bertan egonen da, nahiz

eta ez dien ikasleei azalpenik emanen, ezta haiek egindako galdera edo zalantzei erantzunen.

Probak ikastetxe guztietan ezarriko dira, egun-ordu beretan, aurrez ikusitako egutegiari jarraikiz. Egunero, goizaren lehen orduetan, proba bat ezarriko da eta egunaren gainerako orduetan aurrez ikusitako jarduerak egingen dira.

Ezarleak (dela orientatzaileak, dela tutoreak) probak banatuko ditu, izan daitezkeen zalantzak argituko ditu eta, azalpenak bukatu, ikasleek ordubete izanen dute behar den proba egiteko. Proba hasi ondoren, ikasleren batek zalantza bat badu, ezarleak esanen dio galdera poliki irakurtzeko eta berriro zalantzak balitu, esanen dio ezin diola lagundu eta delako galdera hori utzi eta hurrengo egiteko. Ezarleak ez dio lagunduko probaren inguruko alderdiren bat ebazten.

4- Probak ezartzeko egutegia.

2. KURTSOKO EBALUAZIOA (maiatzaren 14tik 18ra)

Maiatzaren 14a (astelehena)	Maiatzaren 15a (asteartea)	Maiatzaren 16a (asteazkena)	Maiatzaren 17a (osteguna)	Maiatzaren 18a (ostirala)
Ebaluazioa prestatzea	Irakurriaren ulermena 1	Irakurriaren ulermena 2	Testu idatzien ekoizpena	Problemen ebazpena

4. KURTSOKO EBALUAZIOA (maiatzaren 21etik 25erako astea)

Maiatzaren 21a (astelehena)	Maiatzaren 22a (asteartea)	Maiatzaren 23a (asteazkena)	Maiatzaren 24a (osteguna)	Maiatzaren 25a (ostirala)
Ebaluazioa prestatzea	Irakurriaren ulermena 1 Galdera-sorta	Irakurriaren ulermena 2	Testu idatzien ekoizpena	Problemen ebazpena

6. KURTSOKO EBALUAZIOA (maiatzaren 28tik ekainaren 1erako astea)

Maiatzaren 28a (astelehena)	Maiatzaren 29a (asteartea)	Maiatzaren 30a (asteazkena)	Maiatzaren 31 (osteguna)	Ekainaren 1a (ostirala)
Irakurriaren ulermena 1	Irakurriaren ulermena 2	Testu idatzien ekoizpena 1	Problemen ebazpena Galdera-sorta	Testu idatzien ekoizpena 2

5- Probak ezartzeko berariazko jarraibideak.

a) Irakurriaren ulermeneko probak

Irakurriaren ulermena neurtzeko bi koaderno daude, elkarren jarraiko bi egunetan eginen direnak. Lehen Hezkuntzako D ereduko 4. kurtsoko ikasleendako lehen koadernoan narrazio testu bat dago, gaztelaniaz idatzia eta D ereduko 6. kurtsoko ikasleendako lehen koadernoan bi testu daude: bata, gaztelaniaz eta, bestea euskaraz.

Probaren ezarleak ikasleei azalduko die euren begien aurrean duten koadernoan testu bat baino gehiago daudela eta, arretaz irakurri ondoren, irakurgaiaren ondoko galderei erantzun behar dietela. Galdera horietako batzuk aukera anitzekoak dira (erantzun zuzena aukeratu behar dute); beste batzuk erantzun eraikikoak dira (ikasleek euren hitzak erabili behar dituzte galderari erantzuteko). Zenbait galderatan ikasleek, besteak beste, hau egin behar dute: gezien bidez lotu, ekintza sekuentzia bat ordenatu, zerrenda batetik zenbait elementu aukeratu, etab. Ikasleek nahi adina aldiz irakur dezakete testua.

Proba honen iraupena: azalpenak eman eta 60 minutu, gehienez.

b) Testu idatziak ekoizteko probak.

2. eta 4. kurtsoko ikasleek idazmeneko proba bakarra eginen dute. D ereduko 4. kurtsoko ikasleei dagokienez, zenbaki bikoitiek ariketa euskaraz eginen dute eta zenbaki bakoitiek gaztelaniaz. 6. kurtsoko ikasleek bi proba eginen dituzte (proba horietako bakoitza testu mota baten gainekoa izanzen da). D ereduko ikasleek narrazio testua gaztelaniaz eginen dute eta azalpen testua, euskaraz.

Ezarleak proba banatu ondoren zer egin behar den azalduko du. Ahaleginduko da ikasleak idaztera motibatzen. Beharbada ikasleak ez daude ohiturik halako aurkezpenekin (azalpen zabalak emanen dira eta azalpen horietan idatzi behar duten testuaren testuingurua eta helburua deskribatuko dira). Hori hala izanik, garrantzitsua da ezarleak ikasleei argi eta garbi uztea egin beharreko lan zehatza proposatzen zaien ariketan azpimarraturik ageri dela. Ezarleak behin eta berriz esanen du letra argiz idatzi behar dutela, ortografia akatsik egin gabe eta testua egoki aurkeztu behar dutela. Era berean, azpimarratuko die idazten hasi aurretik testua planifikatu behar dutela eta testua bukatu ondoren berrikusi behar dutela.

Proba honen iraupena: azalpenak eman eta 60 minutu, gehienez.

c) Problemak ebazteko proba.

Problemak dituen koaderno bakarra dago. Proba banatu ondoren, ezarleak esanen du sei problema ebatzi behar direla eta nahiko denbora dagoela galderak hausnartzeko eta ebazteko. Era berean, esanen die problemaren batean galdera batzuk sartu direla, enuntziatua ongi ulertzen den jakin ahal izateko (ikaslerik gazteenek haria gal dezakete formatu mota honekin, berria baita beraiendako). Behin eta berriz azpimarratuko da planteamendua eta eragiketak problema bakoitzaren azpian dagoen hutsune zurian egin behar dituztela eta argi eta garbi esan behar dutela erantzuna zein den.

d) Galdera-sortak.

Ezarleak ikasleei esanen die galdera-sorta nola bete behar duten. Egin beharrekoa erraza da. Irakasle tutoreek galdera-sortak bete eta ikasketaburuari emanen dizkiote. Tutoreek gurasoek betetzeko galdera-sortak ikasle bakoitzari emanen dizkiote eta ikasleei azalduko diete aita edo amak bete behar duela galdera-sorta eta bete ondoren tutoreari itzuli.

6- Proben zuzenketa

6.1. Nafarroako laginean sartu gabeko taldeak

Proba bakoitza bukatu ondoren, orientatzaileak tutoreari emanen dizkio koadernoaren kopia bat (erantzunak dituen bat) eta behar den proba zuzentzeko irizpideak (dokumentu hori ezarlearen eskuliburuan dago).

Irakurriaren ulermeneko probak zuzentzeko koadernoan daude puntuazio irizpideak eta ikasleek proba pilotuko galdera irekietan emandako erantzunen adibideak. Problemak ebazteko koadernoan daude puntuazio irizpideak eta problema horien ebazpen-maila balioesteko adibideak. Idazmenari dagokionez, ziklo bakoitzeko zenbait eredu eman dira, zuzenketa laguntzeko.

Tutoreek beren ikasgelako ikasleen probak zuzendu eta puntuatuko dituzte. Orientatzailearen lankidetzaz, zuzendaritza taldeak datuak nola aztertu antolatuko du. Ikastetxeek datu hauek aterako dituzte: ebaluatoriko arlo bakoitzari dagokionez, ehuneko zenbat ikaslek lortu dituzten helburuak, ehuneko zenbat ikasle lortze bidean dagoen edo ehuneko zenbat ikaslek doi-doi lortu dituzten eta ehuneko zenbat ikaslek ez dituzten lortu. Horretarako erreferentea jarraibide hauetako 7. puntuko baremoa da.

Era berean, ikastetxeek euren ikasleen emaitzak Nafarroako laginekoekin erkatzerik izanen dute, dela helburuen lorpenari, dela lortutako batez bestekoari dagokionez. Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak ikastetxeei bidaliko dizkie Nafarroako laginaren emaitza globalak ekainaren 18tik 22rako astean (idazmen probako emaitzak geroago bidaliko badira ere). Ikasturte amaierako oroitidazkian, besteak beste, sartuko dira: aipatutako datu horiek, ziklo bakoitzean –probetan zein galdera-sortetan– lortutako emaitzen balioespena eta hurrengo ikasturteari begira hobetu beharreko arloak.

6.2. Nafarroako laginean sartutako taldeak

Nafarroako laginaren zati diren taldeei dagokienez, ezarleak (orientatzaileak) probak (irakurriaren ulermena eta problemen ebazpena) zuzendu eta puntuatuko ditu. Orientatzaileak talde hauetako proba idatziak fotokopiatu eta tutoreari emanen dizkio, zuzen ditzan. Jatorrizko agiriak Ikuskapen Zerbitzuko Ebaluazio Arlora bidaliko ditu ekainaren 11 baino lehenago, irakasle talde batek zuzen ditzan.

7- Baremoak

a) Bigarren kurtsoa

Irakurriaren ulermena, gaztelaniaz

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
22-32 puntu	19-21 puntu	19 puntu baino gutxiago

Irakurriaren ulermena, euskaraz

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
21-31 puntu	19-20 puntu	19 puntu baino gutxiago

Idazmena

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
Eskalan, 3 - 4ko puntuazioa	Eskalan, 2ko puntuazioa	Eskalan, 1eko puntuazioa

Problemen ebazpena

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
20-30 puntu	18-19 puntu	18 puntu baino gutxiago

b) Laugarren kurtsoa

Irakurriaren ulermena (gaztelaniaz zein euskaraz)

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
23-33 puntu	20-22 puntu	20 puntu baino gutxiago

Idazmena

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
Eskalan, 3 - 4ko puntuazioa	Eskalan, 2ko puntuazioa	Eskalan, 1eko puntuazioa

Problemen ebazpena

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
20-30 puntu	18-19 puntu	18 puntu baino gutxiago

c) Seigarren kurtsoa

Irakurriaren ulermena (gaztelaniaz zein euskaraz)

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
25-36 puntu	22-24 puntu	22 puntu baino gutxiago

Idazmena

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
Eskalan, 3 - 4ko puntuazioa	Eskalan, 2ko puntuazioa	Eskalan, 1eko puntuazioa

Problemen ebazpena

<i>Helburuak lortu ditu</i>	<i>Lortze bidean dago edo doi-doi lortu ditu</i>	<i>Ez ditu helburuak lortu</i>
20-30 puntu	18-19 puntu	18 puntu baino gutxiago

8- Nafarroako laginari dagozkion datuak kodetu eta bidaltzea

Proben emaitzak honetarako berriaz prestatu den Excel formatuko artxibo batean bilduko dira. Artxibo hori Hezkuntza Departamentuko web gunean, NOVEDADES atalean jarriko da, "Zuzenketarako txantiloia" izenarekin. Hori hala izanik ere, eta egoera oso berezietan, lan hori eskuz egiten ahalko da eta datuak aipatutako artxiboko orrialde inprimatuetan jarriko dira.

a) Irakurriaren ulermeneko probak kodetzea

- Ikasleak lau aukeraren arteko bat hautatu behar duen galderetan, zera sartuko da: edo ikaslearen erantzuna (A, B, C edo D) edo 9 kodea (ikasleak galderari erantzun ez dionean edo erantzun bat baino gehiago markatu dituenean).
- Gainerako galderetan (erantzun eraikikoetan, Egia/Gezurra motakoetan, gezien bidez lotzekoetan, sekuentziak ordenatzekoetan,



zenbait alternatibatatik bat baino gehiago/batzuk aukeratu behar diren) behar den kodea sartuko da, zuzenketa koadernoko jarraibideetan ezarri bezala.

b) Matematika proba kodetzea

- Behar den puntuazioa sartuko da, zuzenketa koadernoko jarraibideetan ezarri bezala.

Zuzenketa txantiloia bete ondoren, Excel artxiboa posta elektronikoz bidaliko da helbide honetara: cmachin@cnavarra.es

ESKERRIK ASKO ZURE LANKIDETZAGATIK